

L E K U  N A [FABRIKA]

LEKUONA [FABRIKA]

ZER DA LEKUONA?

Lekuona Fabrika kulturaren alde Errenteriako Udalak egin duen apustu estrategikoa indartzera dator. Ez da bakarrik arituko misio horretan, aurretik kulturaren espazio sortzaile izan diren eremu eta dinamikekin elkarlanean ariko da: Niessen Kulturgunea, Herri Arte Eskola, Xenpelar Tailerrak, Reina Aretoa, Xenpelar Etxea... soinez soin arituko dira, elkar elikatu eta kultur ekosistema indartsua osatzeko.

Errenteriako Udalak argi du aspalditik, kultura aukera dela, ezinbestekoa herri egiteko, etorkizuna eraikitzeko. Aukera, garapen ekonomikorako; aukera, herriaren aniztasuna biltzeko, eta herritarren kohesiorako.

Horrenbestez, arloa, estrategiko bihurtu du herriaren etorkizuna marrazteko unean. Sortzaileen lana erraztea, kulturaren unibertsalizazioa, herritar denen eskura jartzea sorkuntza, eta errenteriarrek herriaren eta kulturaren errealitatean parte-hartzaile aktibo bihurtzea da gakoa. Lekuona Fabrika mugarrria da bide horretan, eta mugarri izatearekin batera, eraldaketarako tresna ere bada; herritarrei kultura bizi eta esperimentatzeko aukerak emango dizkie, banaka zein kolektiboki, arte eszenikoen sorkuntza prozesuak lehen pertsonan partekatu, hiri laborategietan parte hartu, ezagutzak trukatu edo elkarrekin ikasteko aukera.

Elkarrekin ikasteko, eta elkarrengandik ikasteko bide horretan, apustu garrantzitsu bezain ausarta egin du fabrikak, gainera, belaunaldiarteko harremanak eta ezagutzaren partekatze aberatsa sustatzeko espazioa ere izango baita Lekuona Fabrika. Komunitatea osorik, herri bat eta hamaika ertz elkarrekin, kulturatik, etorkizuna eraikitzen.

Errenteriak, kultura, sormena eta pertsona guztien biziarteko ikasketa prozesua bultzatuko dituen hiria izan nahi du, eta bidean doa.

Horretarako, Lekuona Fabrikak, sorkuntzarako, elkarlanerako eta etengabeko ikaskuntzarako baliabideak eskainiko dizkie arte biziaren profesional eta konpainiei, baina baita herritar eta eragileei ere. Proiektuak garatzeko, sormen prozesuak partekatzeko eta ikuskizunez gozatzeko espazioa da Lekuona Fabrika; baita herritarren behar eta egitasmoak bideratu eta errazteko topagunea. Elkarlan eta proiektu askotarikoen bidez, izaera, jatorri eta belaunaldi ezberdinetako herritarrek elikatzeko tresna izan nahi du Lekuona Fabrikak, herritar kritiko, oso, eskuzabal eta enpatikoagoak izateko aukera eskaintzeko. Finean, herritarrek kultura eta sorkuntzatik ahalduzera dator, komunitatea indartzeko, horrek bermatuko baitu Errenteria bizia.



FABRIKA BAT, HIRU LAN ILDO

Anbizio handiak ditu Lekuona Fabrikak, estrategikoak Errenteriarentzat, eta bide horretan hiru lan ildo nagusietan oinarritu du bere proiektua: Herritar Plaza, biblioteka zerbitzua, eta arte biziaren egonaldi eta mediazio programa.

1. HERRITAR PLAZA

Udalarentzat hain garrantzitsua den herritarren parte hartzea bermatzera dator Herritar Plaza, izan ere, erabakitze ahalmena emango die herritarrei.

Hala, Lekuona Fabrikako programazioaren parte bat erabakiko duen herritar batzorde bat sortuko da horren barruan, arte edo kultur arloko proposamenak jaso eta aukeraketa egingo duen batzordea: musika saio txikiak, performanceak, tailerrak...

Baina ez hori bakarrik, deialdi bidezko proiektuak ere hautatuko ditu Herritar Plazak proiektuen hautaketa batzordearen bidez. Deialdi hauen asmoa izango da herritar, elkarte edo kolektibo baten inizatiba edo erronkak jasotzea eta horiek aurrera ateratzeko, beste batzuen esperientziak, ezagutzak, edo bitartekoak eskaintzea. Herriko beharrek lotutako proposamenak, kolektibo jakin batekin lotutakoak, edo norbanakoei lotutakoak izan daitezke.

Bi batzorde hauek eragileek izendatutako ordezkariak eta sortzaileak osatuko dituzte, eta aurretik, trebatzeko prozesua egingo dute.

Gainera, interes antzekoak dituzten herritarren lan taldeak osatzeko bidea ere izango da Herritar Plaza.

Maiztasun finko batekin bilduko diren talde irekiak dira eta fabrika izango da euren topagune.

Herritar Plazaren bidez ontzen den programazioak marka berezi bat izango du.




HERRITARREI
ERABAKITZEKO
AHALMENA EMANGO
DIE HERRITAR
PLAZAK

2. BIBLIOTEKA ZERBITZUA.

Biblioteka da bigarren lan ildo. Lekuona Fabrikako atal nagusietako bat izango da. Fabrikaren hiru solairuetan banatuta, egunero atea zabalduta bezain pronto erabilgarri dago, eta elkarrizketa etengabea du eduki eta programa guztiekin.


Ohiko biblioteka baten zerbitzua eskainiko du, baina, harago joan da: kontzeptua bera irauli du Lekuona Fabrikak, norbanakoa eta komunitatearen arteko zubi bihurtzeko. Bibliotekaren baliabide eta funtsek bat egingo dute Lekuona Fabrikaren programazio eta jardura orokorrekin: bibliotekaren xedea irakurle eta liburuen arteko topaketa lortzeaz gain, komunitatea eta belaunaldi ezberdinen ezagutza partekatua ahalbidetzea izango da, hau da, ohiko erabilera pertsonalak bermatzeaz gain, erabilera komunitarioetara jauzia egiteko bideak irekitzea. Belaunaldiarteko eremua izango da, topaketarako eta elkar ezagutzarako espazioa.



Bibliotekaren funtsen banaketa Lekuona Fabrikak markatutako irizpide eta helburuen arabera egin da. 0 Solairua aisialdiarekin lotutakoa da. Bidaiak, jokoak, mendia, multimedia, musika eta prentsari begirakoa da; lehenengo solairua, sorkuntzari lotutakoa, eta arte eszenikoak, bertsolaritza, eleberria, haur eta gazte literatura, irakurketa erraza, komikia eta poesia diziplenekin elikatu dute; hirugarren solairua, ezagutzari eskainia, artea, biografiak, genero ikasketak eta LGTBI, gizarte zientziak, herriko atala, historia, hizkuntzak, psikologia, saiakera eta zientziak diziplinek bete dute.

Formatu ezberdinetan dituen funtsak erabiltzaileen eskura ditu bibliotekak; fisikoki apaletan daudenak, aurrez eskatutakoak, eta formatu digitalean eLiburutegiaren bidez. Orotarikoa izango da, kategoria, arlo eta literatura genero guztiak jorratuko ditu. Belaunaldiarteko nahasketa berrikuntza eta aberastasun gisa aipatu da Lekuonaren barruan, funtsek bide horretan ere izango dute beren funtzioa, horien sailkapena eta banaketak erabiltzaileen arteko nahasketa bilatuko baitute: belaunaldiartekotasunak, eta diziplinartekotasunak bat egingo dute.

**KOMUNITATEA ETA
BELAUNALDI EZBERDINEN
EZAGUTZA PARTEKATUA
AHALBIDETUKO DU**





3. ARTE BIZIEN EGONALDI ETA MEDIAZIO PROGRAMA

Arte bizen egonaldi eta mediazio programa da hirugarren ildo. Xedea sorkuntza sustatu eta mediazioa lantzea izango da, zentralitatea emanez. Zentralitate horrek egiten du berezi, mediazioa tresna gisa egituratu eta egonkortzea berrikuntza baita. Egonaldi programa baten bidez, arte bizen sorkuntza prozesuak babestu eta laguntzea da helburua.

Arte bizen egonaldi programan parte hartuko duten konpainiak deialdi bidez hautatuko dituzte. Kalitatea, originaltasuna eta berrikuntza maila, eragileekin sormen prozesua partekatzeke aukerak eta euskarazko proposamenak baloratuko dira.


Mediazioa egonaldi programari izaera ematen dion ardatzetako bat da. Mediazio programaren bidez, proiektu artistikoak herritarrekin partekatutako sorkuntza proiektu bihurtzea bilatzen da. Mediazioetan parte hartzen duten pertsonekin ezagutza eta esperientziak sortzea da azken helburua. Sorkuntza lana elkartruckerako, eztabaida kritikorako eta ikasketarako baliabidea da.

Mediazioak izan daitezke entsegu irekiak, trukeak, saio edo masterclassak, tailerrak, saio edo prozesuak, jarduera paraleloak, ikusle komunitateak, hedabideekin topaketak, sorkuntza partekatutak, edota saio independenteak.



Musika Egonaldiak ere hartuko ditu Lekuona Fabrikak. Musikarekin berariaz aritzeko programa propioa sortuko da. Musikariei jauzia ematen laguntzea da helburua, formazioa eta aholkularitza eskaintzea, herriko eragileekin partekatzeke espazioak sortuta, eta zuzeneko musika kultura zabaldua. Zerbitzu egonkorra sortzea ere bilatuko du Lekuona Fabrikak diskoen grabaketak laguntzeko, komunikazioa, eta aholkularitza juridikoa eta artistikoa eskainita.

Lekuona Fabrika kulturaren bihotza izango da, baina taupada ezinbestekoak ditu Niessen Kulturgunea, Herri Arte Eskola, Xenpelar Tailerrak, Reina Aretoa, Xenpelar Etxea... Hainbat espazio helburu bakarrarekin: kultura eta sorkuntza sustatzea; hainbati espazio, gorputz bakarrean elkarrekin taupaka. Horiek guztiek bultzatuko dute sorkuntza, guztietan egosiko da artea, su txikian gehienetan, bizian tarteka, komunitatea saretu eta Herri Bizia egiteko.



L E K U  N A [FABRIKA]

ZABALIK

ASTELEHENA-OSTIRALA: 9:00-20:00

LARUNBATA 9:00-14:30

Urantzu Kalea, 7, 20100 Errenteria, 943 44 96 35